



BERGARA SAUTUA, Ander

EMAKUNDEko letratua  
Manuel Iradier, 36  
01005 Gasteiz  
emakunde.programas@ej-gv.es

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 63-74]

---

# Euskal Herriko unibertsitateen hizkuntza-ereduak

(Linguistic models of the universities of the Basque Country)

---

**E**uskal Autonomia Erkidegoko hiru unibertsitateen baitan euskararen erabileraren normalkuntza prozesua zertan den aztertzen da jarraian: Euskal Herrikoan, Deustukoan eta Mondragon Unibertsitatean. Horretarako, bakoitzeko puntu zehatzak jorratzen dira eta datuen berri ematen diguten taulak eskaintzen.

**a** continuación se analiza el proceso de normalización del euskara que tiene lugar en la Universidad del País Vasco, en la Universidad de Deusto y en Mondragon Unibertsitatea desde diversos aspectos que se hacen acompañar por tablas numéricas.

**n**ous analysons ci-après le processus de normalisation de l'euskera qui a lieu à l'Université du Pays Basque, à l'Université de Deusto et à la Mondragon Unibertsitatea sous plusieurs aspects, accompagnés de tableaux numériques.

1. **Atarikoak.** 2. **Lege markoa.** 3. **Euskal Herriko Unibertsitatea:** 3.1. Hizkuntzen gaineko arauketa unibertsitate-estatutueta. 3.2. Hizkuntza normalkuntzarako egiturak. 3.3. Hizkuntza normalkuntzarako plangintzak. 3.4. Ikasleak. 3.5. Irakasleak. 3.6. Euskarazko irakats eskaintza. 3.7. Doktore tesiak, testu liburuak eta bestelako argitalpenak. 4. **Deustuko Unibertsitatea:** 4.1. Hizkuntzen gaineko arauketa unibertsitate-estatutueta. 4.2. Hizkuntza normalkuntzarako egiturak. 4.3. Hizkuntza normalkuntzarako plangintzak. 4.4. Ikasleak. 4.5. Irakasleak. 4.6. Euskarazko irakats eskaintza. 4.7. Testu liburuak, doktore tesiak eta bestelako argitalpenak. 5. **Mondragon Unibertsitatea:** 5.1. Hizkuntzen gaineko arauketa unibertsitate-estatutueta. 5.2. Hizkuntza normalkuntzarako egiturak. 5.3. Hizkuntza normalkuntzarako plangintzak. 5.4. Ikasleak. 5.5. Irakasleak/Langileak. 5.6. Euskarazko irakats eskaintza. 5.7. Doktore tesiak, testu liburuak eta bestelako argitalpenak. 6. **Azken gogoeta.**

## 1. Atarikoak

Ondorengo lerroetan Euskararen Legeak ezartzen duen elebitasuna hezkuntza unibertsitarioan zelan garatu den aztertuko dugu. Bestela esateko, euskararen erabileraren normalkuntza prozesua Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetan zertan den azaltzen saiatuko gara. Beraz, eta hitzaldiaren izenburutik bestelakorik ondoriozta badaiteke ere, azterlan hau Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-sistema osatzen duten hiru unibertsitateetara mugatuko da: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), Deustuko Unibertsitatea (DU) eta Mondragon Unibertsitatea (MU).

Azterlan honetan ezagutzera emango ditugunak aipatu hiru unibertsitateetatik eskuratu ahal izan ditugun datuak dira. Aurrez esan beharra dago, datu-bilketa lan gaitza suertatu dela. Ikusiko duzueenez, zenbait arlotan datu homogeneoak lortzea ezinezkoa izan zaigu, batzuetan unibertsitateek datuak modu desberdinetan jasota zituztelako, beste batzuetan eskaturiko informazioa eskueran ez zegoelako eta abar. Kontuak kontu eta eragozpenak eragozpen, ondoren emango ditugun datuak unibertsitate bakoitzean euskararen normalkuntzaren egoera zein den ezagutzeko lagungarri izango zaizkizuelakoan gaude. Hain zuzen ere, unibertsitatez unibertsitate landuko ditugun arloak ondoko hauek izango dira:

1. Hizkuntzen gaineko arauketa unibertsitate-estatutueta
2. Hizkuntza normalkuntzarako egiturak
3. Hizkuntza normalkuntzarako

plangintzak

4. Ikasleak
5. Irakasleak
6. Euskarazko irakats eskaintza
7. Doktore tesiak, testu liburuak eta bestelako argitalpenak

## 2. Lege markoa

Mamiari heldu baino lehen eta gaia behar moduan kokatzeko, indarreko lege-araudiari gainbegiratu bat ematea komenigarria deritzogu. Dakigunez, Euskararen Erabilpena Arautzeko 10/1982 Oinarrizko Legeak Konstituzioak (3. art.) eta Autonomia Estatutuak (6. art.) hizkuntz ofizialtasunari buruz ezarritako lerro nagusiak garatu zituen, euskara eta gaztelararen ofizialtasun bikoitzak dakartzan ondorio juridikoak finkatuz.

Euskararen Legeak kapitulu oso bat eskaintzen dio irakaskuntza arloari (II. tituluko II. kapitulua; 15etik 22ra bitarteko artikulua). Hala eta guztiz ere, legearen arauketa unibertsitateko aurreko irakaskuntzari zuzenduta dago ia esklusiboki eta ez du irakaskuntza unibertsitarioaren gainean aipamen zuzenik egiten<sup>1</sup>. Hain zuzen, unibertsitate mailako irakaskuntzari aplikagarriak bi artikulua hauek baino ez dira: batetik, 15. artikulua, non ikasle guztiei irakaskuntza maila guztietan — irakaskuntza unibertsitarioa barne, hortaz — irakaskuntza euskaraz zein gaztelaraz hartzeko eskubidea aitortzen zaien eta, bestetik, 19. artikulua, zeinak irakasleen gaikuntzarako unibertsitate-eskoletako irakasleak euskaraz eta gaztelaraz erabat gai izan daitezen lortzeko beren ikasketa egitarauak egokituko dituztela dioen. Bistan da, beraz, 19. artikulua nahiz eta unibertsitate-eskolez ari, unibertsitate-aurreko irakaskuntzaren irakasle elebidunen premiari erantzuteko egin zela eta ez unibertsitate mailako irakaskuntza arautu gura zelako.

16 urte beranduago, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antolatzeako 19/1998 Legeak irakaskuntza unibertsitarioan euskararen normalkuntzari dagokionez lege mailan zegoen hutsunea bete du. Izan ere, zioen adierazpenean esaten den bezala, legearen helburuetako bat unibertsitate mailan euskararen erabilera sustatzea da; bai irakaskuntzan, bai zientzia-ikerketan, bai administrazio- eta zerbitzu- jardueretan.

Legeak argi uzten du unibertsitate publikoek eta pribatuek euskararen erabileraren normalizazioan duten erantzukizun maila desberdina. Hala, unibertsitate publikoari dagokionean "legeak hezkuntza eskaintza

1. Euskararen Legeak ez bezala, orduko Galizieraren Normalkuntzarako 3/1983 Legeak eta Katalanaren Normalkuntzarako 7/1983 Legeak irakaskuntza unibertsitarioari berariaz zuzenduriko arauak jaso zituzten.



Deustuko Unibertsitatea.

elebiduna emateko oinarriak jarri nahi ditu<sup>2</sup> eta horretarako artikulua oso bat eskaintzen dio hizkuntzen ofizialkidetasunari eta normalizazioari (5. art.). Bertan, unibertsitate publikoak —hots, Euskal Herriko Unibertsitateak— euskararen erabilera berdintasun eta kalitatezko baldintzetan normaltzeko behar diren neurriak hartuko dituela adierazten da, beti ere unibertsitate publikoa hizkuntza-arrazoiengatik zatiketarik ez sortzeko irizpidea errespetatuz. Era berean, hizkuntza normalkuntza bultzatzeko unibertsitateak euskalduntze programak egingo dituela dio, eta programa horiek programa-kontratuen kontura finantzatzeko direla.

Unibertsitate pribatuen kasuan, aldiz, ez da euskararen normalizazioaren gainean aipamenik egiten; hala ere, hauek 2. e) artikulua EAEko unibertsitate guztiei ezarritako ondorengo funtzioa bete beharko dute: "gizartearen ezaguera zabaldu, bereziki euskal kulturarena eta euskararena".

Lege-markoari gainbegiratu eman eta gero hel diezaiozun mamiari eta azter ditzagun unibertsitaterik unibertsitate euskararen egoerari buruz jasotako datuak.

### 3. Euskal Herriko Unibertsitatea

Bilboko Unibertsitatea zena 1980an Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) bilakatu zen.

Harrezkerotik unibertsitate-hezkuntzaren zerbitzu publikoa eskaintzen dabil. EHU hiru Campusetan banatuta dago (Arabakoa, Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa) eta egun irakaskuntza unibertsitarioaren zutabe nagusia da: batetik, EAEko unibertsitate publikoa delako eta, bestetik alde handiz ikasle gehien jasotzen duen EAEko unibertsitatea delako, unibertsitate mailako ikasleen hiru laurdenak inguru —70.000 ikasle gutxi gora behera—.

#### 3.1. Hizkuntzen gaineko arauketa unibertsitate-estatutuetan

Estatuko gainontzeko Autonomia Erkidego elebidunetako unibertsitate publikoetako estatutuekin konparatuta<sup>3</sup>, EHUkoek hizkuntzen erabileraren gaia luze eta zabal arautzen dute. Lehenengo tituluaren 8. artikulua dio unibertsitateak aparteko ardura eskainiko diela euskal kulturari eta euskarari. Baina bereziki garrantzitsua dena VII. tituluak hizkuntza ofizialen erabilerari buruz egiten duen arauketa oparoa da: guztira 17 artikulua (241.etik 257.era). Bertan aditzera ematen denez, EHUko hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelera dira eta unibertsitateak bien erabilera normala eta ofiziala bermatuko du.

243. artikuluan unibertsitarien hizkuntza eskubideak zehazten dira, dela administrazio

2. EAEko Unibertsitatea Antolatze 19/1998 Legearen zioen adierazpenean aipatua.

3. Estatuko unibertsitate publikoetako estatutuaren arauketari buruz, ikus EXPOSITO Y GÓMEZ, E, Els professors universitaris, la llibertat de càtedra i l'ús de les llengües pròpies, Revista de Llengua i Dret, 23. zenb, 1995.

harremanak bideratzean —unibertsitatea erakunde publikoa den heinean berarekin harremanak hizkuntza ofizial bietan izateko eskubidea—, dela unibertsitateak propio dituen irakaskuntza eta ikerkuntza eremuetan —irakaskuntza edozein hizkuntza ofizialetan eman eta jasotzeko eskubidea eta lanak, azterketak eta ikerlanak euskaraz zein gazteleraz aurrera eramateko eskubidea—.

Dena den, estatutugileek bazekiten aipaturiko eskubideak ezin zitezkeela egun batetik bestera bermatu; hargatik, 244. artikulua euskararen erabilera ezarian-ezarian eta modu planifikatuan normalduko dela dio.

Aipatutakoez gain, VII. tituluan beste hainbat arlo jorratzen dira, hala nola irakaslearen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen euskalduntzea<sup>4</sup>, euskarazko irakats material eta ikerlanen sustatzea, euskararen aldeko erakundeekiko harremanak bultzatzea, errotuluak, agiri ofizialak eta jakinarazpenak burutzeko hizkuntz irizpideak eta beste.

### 3.2. Hizkuntza normalkuntzarako egiturak

Hizkuntza normalkuntzarako egiturak, EHUko estatutuetan 251. artikulutik aurrera arautzen dira eta honako hauek dira: Euskara Errektoreordea, EHUko Euskara Zerbitzua, Ikastetxeko Euskara Zerbitzuak, Euskara Kabinete Teknikoa eta Euskara Institutua.

Euskara Errektoreordeak unibertsitate eremuan euskararen garapen eta normalkuntzaren aldeko jarduerak bultzatzen eta koordinatzen ditu. Euskara Errektoreordea EHUko Euskara Batzordearen lehendakaria da. Batzorde hau organo aholku emaile bat da eta bere funtzio nagusiak, batetik, euskararen normalizaziorako plangintza eta neurriak proposatu eta, bestetik, hizkuntza politikari dagokionean unibertsitateko organo betearazleei aholku ematea dira.

Unibertsitate mailako Euskara Batzordeekin batera, fakultate, goi eskola tekniko eta eskola unibertsitario bakoitzak bere Euskara Batzorde propioa du. Ikastetxeko Euskara Batzordeek, funtsean, ondorengo funtzioak betetzen dituzte: ikastetxe eremuan euskararen normalizazio gaitan aholku eman eta proposamenak egin eta plangintza

orokorretan jasotako helburuak zehazteko ikastetxe mailako ezarpen planak burutu.

Euskara Kabinete Teknikoa Euskara Batzordearen organo iraunkor legez konfiguratu dago eta bere funtzioak, besteak beste, segidan emandako hauek dira: euskara batuaren erabilera zuzena bermatu, euskarari dagokionean argibide eta aholku ematea, Euskara Batzordeen proposamenak koordinatu eta bideratu, eta euskararen normalkuntzarako planak ezartzeko beharrezkoak diren baliabideak kudeatu.

Azkenik Euskara Institutua geratzen zaigu. Berau 1996an sortu zen eta bere jomuga euskararen normalkuntza eta garapena da. Orain arte Institutuaren zeregin nagusiak euskarazko testu liburuen argitaratzea eta irakasle euskaldunentzako birzikleta ikastaroen antolaketa izan dira.

### 3.3. Hizkuntza normalkuntzarako plangintzak

Dagoeneko EHUk euskararen normalkuntzarako bi plangintza onartu ditu. Lehenengoa 1990ean onartu eta 8 urtez izan zen indarrean. Plangintzaren ebaluazioaren emaitzek adierazten dutenez, helburuen betetze maila %75 izan da<sup>5</sup>.

II. Plangintza<sup>6</sup> 1999ko martxoaren 3an onartu zuen EHUko Gobernu Batzarrak. Plangintzaren indarraldia 5 urtekoa izango da, 1999/2000 ikasturtean hasi eta 2004/2005ean amaituz<sup>7</sup>. II. Plangintzan ezarritako helburuak orokorrak direnez gero, akademia alorrari dagokionez batez ere, ikastetxe bakoitzak bere Ezarpen Plana egin beharko du helburu horiek zehazte aldera. Bestalde, plangintzaren emaitzen ebaluazioa urtero egingo da, horretarako batzorde bat sortuz: Euskararen Normalizaziorako Plangintzaren Ebaluazio Batzordea. Batzordearen burua Euskara Errektoreordea izango da eta, berarekin batera, hiru Campusetako euskara arduradunek osatuko dute.

### 3.4. Ikasleak

1997/98 ikasturtean 1. eta 2. zikloko 70.000 bat ikasle zeuden EHU. Hauetatik %16a inguru euskarazko lerroetan matrikulatuta zegoen eta lehen mailako ikasleen kasuan portzentai hori %21,5era heltzen zen.

4. Irakasleei ez bezala, EHUko administrazio eta zerbitzuetako beharginei, euskalduntze prozesuari dagokionean, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetako beharginei aplikatutako arauak hizkuntza eskakizunen sisteman oinarrituak aplikatzen zaizkie.
5. Honen gainean argibide gehiago izateko, ikus: EUSKARA ERREKTOREORDETZA, EHUko euskarazko irakats eskaintzaren egoera, UPV/EHU, 1998.
6. Dagoeneko II. Plangintzaren testua argitaratua dago. EUSKARA ERREKTOREORDETZA, UPV/EHUko Euskararen Erabilerearen Normalizaziorako II. Plangintza, UPV/EHU, 1999.
7. Aipatutako bukatze-datak salbuespen bat du administrazio eta zerbitzuetako langileei dagokienez. Izan ere, euren hizkuntza eskakizunen derrigortasun daten ezarpenari dagokien plangintza 2002an amaituko da eta, ondorioz, 1999 eta 2002 urteen arteko tartean izango da indarrean.

Ondoko taulan ikus daitekeenez, euskaraz ikasten duten ikasleen kopurua eta portzentaia 1993/94 ikasturteetik etengabe igotzen ari da. Aldiz, gaztelaniaz ikasten dutenak gero eta gutxiago dira.

	93/94	94/95	95/96	96/97	97/98
Ikasleak guztira	16954	17737	17829	17478	16500
Gaztelaniazko ikasleak guztira	14027	14540	14331	13883	12956
Euskarazko ikasleak guztira	2927	3197	3498	3595	3544
<b>Euskarazko ikasleak (%)</b>	<b>17,3</b>	<b>18</b>	<b>19,6</b>	<b>20,6</b>	<b>21,5</b>

Matrikulazio datuak unibertsitatean sartzeko hautaprobak datuekin alderatzen baditugu, ikusiko dugu hautapropa euskaraz eta lehen mailatan euskaraz ikasten dutenen arteko aldea nabaria dela, 11,5 puntu portzentualekoa hain zuzen. Datu horien arabera, hautapropa euskaraz egin zuten 1500 ikasle inguruk gaztelania aukeratu zuten goi mailako ikasketarako. Ikusiko dugun legez, fenomeno hau modu batera edo bestera unibertsitate guztietan errepikatzen den fenomeno da eta egoera hori eragiten duten balizko faktoreen gainean azterlan honen ondorioetan arituko gaitzaizkizue<sup>8</sup>.

Aukeratutak	1994	1995	1996	1997	1998
<b>Hizkuntza</b>					
Hautaprobak guztira (ikasle kopurua)	13339	15400	15174	14674	14508
Hautaprobak gaztelera (ikasle kopurua)	9980	11159	10738	10093	9687
Hautaprobak euskaraz (ikasle kopurua)	3359	4241	4436	4581	4821
Hautaprobak euskaraz (portzentaia)	25	27	29	31	33

Azkenik, etorkizunera begira eta unibertsitate-aurreko joerak ikusita, ondorengo urteetan unibertsitate sartuko diren ikasleen kopurua gutxitzea espero da, euskaraz ikasteko prest egon daitezkeen ikasleen kopurua handitu edo mantenduz eta gaztelaniaz ikasi nahi izango dutenen kopurua nabarmenki jaitsiz.

### 3.5. Irakasleak

EHU n pasa den ikasturtean lanpostu elebiduna betetzen zuten irakasleak 764 ziren,

irakasle multzo osoaren %23a inguru. Lehen plangintza indarrean egondako ikasturteetako (1991/92-1997/98) bilakabideari erreparatu gero, irakasle elebidunen kopuruaren hazkundera epe horretan 402 irakasleena izan dela ikusiko dugu. Hazkunderik esangarriena 1991/92tik 1993/94ra gertatu zen —ehunetik gorako irakasle elebidun berri ikasturte bakoitzeko— eta hortik aurrera gutxi gora behera 40 irakasle euskaldun berri izan dira urtero.

Ikasturtea	91/92	92/93	93/94	94/95	95/96	96/97	97/98
Irakasle elebidunak	363	481	586	620	686	726	764

Irakasle elebidunen horniketeta, kontratazio berrien bidetik burutu da batik bat eta, neurri askoz ere txikiago batean, unibertsitateko plantilako irakasleen euskalduntzetik. Izan ere, lehen plangintzan egindako aurreikuspenak bete eta gainditu dira kontratazioei dagokienean —295 lanpostu berri aurreikusi ziren eta 361 sortu—, ez ordea hizkuntza birziklaketari dagokienean —146 irakasle euskalduntzea aurreikusi zen eta 41 baino ez ziren euskaldundu—.

### 3.6. Euskarazko irakats eskaintza

Azpiko taulan<sup>9</sup>, 1997-98 ikasturteari dagokionez, derrigorrezko kredituen eskaintzaren balio absolutuak ez ezik, euskaraz eskaintzen zenaren proportzioa ere adierazten da. Hautazko kredituetan, ostera, ez da unibertsitatearen eskaintza osoa azaltzen, ikasleek ikasketak amaitzeko bete beharreko kredituak baizik.

Kredituak	Derrigorrezkoak		Hautazkoak		Guztira				
	Arloak	Gainditu behar	Euskaraz	Gainditu behar	Euskaraz	Guztira			
		kop.	%	kop.	%	kop.	%		
Giza									
Jakintzak	4.396	3345	76,1	1141	1499	131,4	5.537,0	4843,5	87,5
Saio ZZ.	470,5	145,5	30,9	139,5	33	23,7	610,0	178,5	29,3
Gizarte									
Zientziak	3.082	2124	68,9	764,5	687	89,9	3.846,5	2810,5	73,1
Osasun									
Zientziak	1.653	421,5	25,5	133,5	79,5	0,0	1.786,5	501	28,0
Natur eta									
Saio ZZ.	470,5	145,5	30,9	139,5	33	23,7	610,0	178,5	29,3
Ikasketa									
Teknol.	4.541	1367	30,1	839,5	216	25,7	5.380,5	1582,5	29,4
<b>Guztira</b>	<b>14.142,5</b>	<b>7402</b>	<b>52,3</b>	<b>3018</b>	<b>2515</b>	<b>83,3</b>	<b>17160,5</b>	<b>9916</b>	<b>57,8</b>

Euskarazko eskaintza, batez ere, derrigorrezko kredituetan dago. Izatez, ikasketa

8. Honen inguruan, ikus EUSKARA ERREKTOREORDETZA, EHUko euskarazko irakats eskaintzaren egoera, 21-25 orr.

9. Taulan ikasketa plangintza berria ez duten ikasketak ez dira sartu. Hori dela eta, zenbaki absolutuetan euskarazko benetako eskaintza zabalagoa da taulan aurkezten dena baino; dena den, euskaraz egiten den eskaintzari dagokion proportzioa oso antzekoa da.

gutxi batzuetan eskaintzen diren hautazko kredituen kopurua ikasleek gainditu behar dituztenak baino gehiago dira; ikasketa gehienetan, berriz, ez da hautazko krediturik eskaintzen euskaraz, Euskara Teknikoari dagozkionak salbu. Derrigorrezko kredituei dagokionean, 7.402 kreditu eskaintzen dira euskaraz, kreditu guztien %52. Eskaintzarik sendoena Giza Jakintzetan eta Gizarte Zientzietan dago. Bestalde, 2005erako derrigorrezko kreditu kopuru osoaren %80 euskaraz ematea aurreikusten da II. Plangintzan.

### 3.7. Doktore tesiak, testu liburuak eta bestelako argitalpenak

Euskarazko liburugintzari dagokionean, ezinbestekoa zaigu Euskara Institutua aipatzea. Izan ere, sortu zenetik 1998ra arte 65 liburu argitaratu ditu, gehienak testu liburuak. Euskara Institutuaz gain beste erakunde eta argitaletxe batzuek ere euskarazko argitalpenak ekoiztu dituzte, bereziki, Udako Euskal Unibertsitateak. Hala ere, hauek kaleraturiko argitalpenak ez dira testu liburuak izan, jakintza arlo ezberdinetako goi mailako liburuak baizik.

Beheko taulan 1998ra arte Euskara Institutuaren bilduman argitaraturiko liburuen kopurua azaltzen da jakintza arloka. Parentesi artean dauden zenbakiak, Euskal Filologiari edo Euskarari berari buruzkoak kenduta Institutuak argitaratu dituen liburuei egiten diete erreferentzia. Ikus daitekeenez, arlo batetik bestera euskarazko liburugintzan alde nabarmenak daude.

Testu liburuak (Arloa)	Giza Jakintzak	Gizarte Zientziak	Osasun Zientziak	Natur eta Saio ZZ.	Ikasketa Teknolog.	Guztira
EHUK argitaratu liburuak	31(25)	16	1	5	12	65 (59)

Doktore tesiei gagozkiola, EHUn 220 tesi inguru defendatu dira azken urteotan eta haietatik %10a inguru euskaraz. Tesi gehien Euskal Filologia arloan izan dira eta gutxien Osasun Zientzia eta Ikasketa Teknologikoen alorrean.

Arloak	87	88	89	90	91	92	93	94	95	96	97	Guztira
Euskal Filologia	3	2	1	3	1	1	2	4	3	5	8	33
Giza Jakintzak	0	1	0	0	3	4	5	3	2	6	4	28
Gizarte Zientziak	1	1	0	0	0	2	1	1	2	1	2	11
Osasun Zientziak	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	1	2
Natur eta Saio ZZ.	0	0	0	1	0	0	1	1	2	2	5	12
Ikasketa Teknolog.	1	1	0	0	0	0	1	2	2	2	0	9

## 4. Deustuko Unibertsitatea

Deustuko Unibertsitatea (DU) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatearik zaharrena da. Jesusen Konpainiak zuzenduriko Eliza Katolikoaren Unibertsitate pribatua dugu hau. Ikasketa unibertsitarioak 1886-87 ikasturtetik eskaintzen baditu ere, 1963ra arte ez zuen aitoren ofizialik jaso<sup>10</sup>, Sede Santuak eta Espainiako Estatuak Elizaren Unibertsitateak ofizialki onartzeko 1962an sinaturiko hitzarmenaren ondorioz.

DUK egun bi Campus ditu; izan ere, 1979an betiko Bilboko Campusari Donostiakoa gehitu zitzaion. Bestalde, Unibertsitatea bederatzi fakultatek, zortzi Institutuk eta bost Eskolek osatzen dute.

### 4.1 Hizkuntzen gaineko arauketa unibertsitate-estatutuetan

Deustuko Unibertsitateak azken Estatutu Orokorrak 1986an onartu zituen; beraz, Euskararen Legea baino 4 urte beranduago. Hala ere, Estatutuek ez dute Unibertsitatearen hizkuntz erregimenari buruz aipamenik egiten.

Dena den, Estatutuen 3. artikulua DUren helburuen artean "Euskal Herriko kultura propioaren sustapena" ezartzen du. Hori dela eta, Euskal kulturaren osagairik funtsezkoena euskara izaki, Unibertsitateak euskararen erabilera bultzatzea xede nagusitzat hartzen duela ondoriozta daiteke.

### 4.2 Hizkuntza normalkuntzarako egiturak

Momentu honetan DUen euskararen erabilera bultzatzeko bost organo daude: Euskara Errektoreordea, Euskara Batzordea, Kohesio Linguistikoko Organoak, Euskara Zerbitzua eta Euskal Gaien Institutua.

Euskara Errektoreordea 1986an aukeratu zen lehen aldiz. Pertsona bakarreko organo honen helburua euskararen erabilera normaltzea da, eta bere funtzio nagusia euskararen hizkuntza normalkuntza alorrean Unibertsitatearen jarduerara gidatzea eta koordinatzea da.

Errektoreordetzaren eskutik, 1993an, Euskara Batzordea sortu zen ofizialki. Deustuko Unibertsitateko irakaslez osaturiko batzorde aholku emailea da, eta jomuga nagusitzat du

10. 2367/63 Dekretua, irailaren 7koa.

jarduera unibertsitario guztietan euskararen erabileraren normalkuntza planifikatzea. Batzordearen funtzioak, besteak beste, ondorengo hauek dira: hizkuntza-plangintza orokorrari buruz aholkatu, euskararen erabilera sustatzeko proposamenak egin eta hauek gauzatzeko bultzatu eta euskararekin zerikusirik duten arloetan jarraibideak eman.

Euskara Batzordeak egindako proposamenari jarraiki, 1995ean Euskara Zerbitzua sortu zen. Euskara Batzordea, funtsean, itzulpen lanetan ari da.

1999ko urtarrilean onarturiko Euskara Normalizatzeko Planaren ondorioz, DUn Kohesio Linguistikoko Organoak sortu berri dira. Kohesio Linguistikoko Organo Orokorra unibertsitate eremuan ikastetxe guztien euskararen normalkuntza koordinatzen du. Ikastetxe guztiek ordezkari bat dute bertan. Bestalde, fakultate eta eskola bakoitzak Kohesio Linguistikoko Organo bat du. Beraien funtzio nagusiak beren ikastetxeetan euskararen erabilera normaltzea, plangintzak jarraitzea eta, oro har, euskararen ardura eramatea dira.

Azkenik, Euskal Gaien Institutua 1974an sortu zen, orduan Bizkaitar Ikaskuntzen Departamentua izenarekin. Institutuak Euskal Herriari buruzko jakintza transmititzea eta euskal kultura, euskara barne, zabaltzea du helburu, Euskal Herriko gaiei buruzko ikerkuntza eta irakaskuntza bultzatuz eta koordinatuz. Institutuak gaur egun euskal gaiei buruzko liburutegirik oparo eta interesgarrienetarikoa du, 1994tik DUko Liburutegi Nagusiari lotuta dagoen *Euskal Ikaskuntzak* liburutegi saila. Halaber, dokumentazio zentru propioa ere badu, EUSKALDOK-Euskal Dokumentazio Zentrua alegia. Horiez gain, Institutuak euskal kulturako 5 graduongo programa eskaintzen ditu: Euskal Foru Zuzenbide Zibil eta Autonomikoan Masterra eta Euskal Foru Zuzenbide Zibilean, Euskal Zuzenbide Autonomikoan, Euskal Kulturaren eta Euskal Arte Garaikideko Espezializazio Diplomak.

### 4.3. Hizkuntza normalkuntzarako plangintzak

Deustuko Egitasmo Unibertsitarioa garatzeko iaz onartutako Hirurteko Planak aurreikusitakoa betez, 1999ko urtarrilean Deustuko Unibertsitateko Euskara Normalizatzeko Plana onartua izan da. Dagoeneko Planaren ezarpenean pausuak eman dira: Kohesio Linguistikoko Organo guztiak sortu eta suspertu, fakultate eta eskola guztietako eredu linguistikoko planifikatu, komunikazio eta zerbitzuetako arauak bideratu, terminologia administratiboa normaltzeke, batzeko eta euskaratzeko Komisio Tekniko bat sortu e.a.

Bestalde, aipagarriak dira 1992tik eta 1993tik, hurrenez hurren, Bilboko Zuzenbide Fakultateak eta Donostiako Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak euskararen erabilera sustatzeko indarrean dituzten plangintza espezifikoak. Ikusiko dugun legez, plangintza horiek fruitu inportanteak eman dituzte; izatez, ikasketa horiek dira, Euskal Filologia alde batera utzita, euskarazko irakats eskaintza sendoena eta zabalena dutenak.

### 4.4. Ikasleak

1997-98 ikasturtean DUk 16.248 ikasle izan ditu: 14.589 Bilboko Campusean eta 1.659 Donostiakoan. Hauetatik 1.681 euskarazko kredituetan matrikulatuta (% 10a), 1.239 Bilbon (%8,5a) eta 442 Donostian (% 27a).

Beheko taulan eta 1996-97 ikasturteari dagokionean, euskarazko kredituetan matrikulaturiko ikasleen kopurua emateaz gain, ikasleen euskara gaitasuna aztertuko dugu. Horretarako, matrikula egiterakoan ikasleek betetzen dituzten inkestetatik ateratako datuak emango dizkizuegu; datu subjektiboak beraz.

1996-97 ikasturtea	ikasleak guzt. Kop.	ikasteko gai Kop.	%	eusk.ikasten Kop.	%
Bilboko Campusa	15.394	3.827	24,9	1.238	8,0
Donostiako Campusa	2.117	1.180	55,7	537	25,4
<b>Deustuko Unibertsitatea</b>	<b>17.511</b>	<b>5.007</b>	<b>28,6</b>	<b>1.775</b>	<b>10,1</b>

Bilboko Campusean 1996-97 ikasturtean matrikulaturiko ikasleen laurden batek bere burua euskaraz ikasteko gai ikusten bazuen ere, euskaraz %8ak matrikulatu ziren.

Donostiako Campusaren gaineko datuei lotzen bagatzaizkie, ikus dezakegu ikasleagoa Bilbon baino askoz euskaldunagoa dela, eta hala adierazten dute 1996-97 ikasturtean euskaraz ikasteko gai zirenen eta euskaraz ikasten zebiltzan ikasleen portzentaiek (%56 eta %25 hurrenez hurren). Edozelan ere, eta nahiz eta euskaraz ikasten ari ziren ikasleen portzentaia Bilbon baino hiru aldiz handiagoa izan, euskaraz ikasteko gai izan arren, gaztelaniaz ikasten zuten ikasleen portzentaia Donostian Bilborenaren bikoitza baino handiagoa zen.

Deustuko Unibertsitateko ikasleago osoa hartuz gero, hau da, Bilboko eta Donostiako Campusak batera, honako datuak ditugu: matrikulaturiko ikasleetatik (17.511) %29 euskaraz ikasteko gai zirela esan bazuten ere, euskaraz matrikulatuen portzentaia %10ekoa izan zen.

## 4.5. Irakasleak

Gaur egun (1998-99 ikasturtean) Deustuko Unibertsitatean 77 irakasle daude euskaraz irakasten: 45 Bilboko Campusean eta 32 Donostiakoan<sup>11</sup>. Dena dela, hauetatik gerta daiteke batzuek kreditu bat baino gehiago irakastea fakultate berean edo desberdinetan.

Momentukoa orain dela bi ikasturteko egoerarekin alderatzen badugu<sup>12</sup>, Bilbo zein Donostiako Campusean irakasle elebidunen hazkunde esangarria gertatu dela atzeman dezakegu. Zehazki, Bilbon beste 8 irakasle eta Donostia beste 7.

Irakasle elebidunak	1996-97	1998-99
Bilboko Campusa	37	45
Donositako Campusa	25	32
<b>Deustuko Unibertsitatea</b>	<b>62</b>	<b>77</b>

Irakaslegoa euskalduntzeko DUak neurri ezberdinak hartu izan ditu: irakasle elebidunen kontratazioa, irakasle elebidunak gaitzeko bekak atera eta irakasle guztiei euskarazko klaseak doan eskaini. Beste alde batetik, laster sortzeko dago Euskal Irakasleentzako Laguntza Gunea, euskaraz irakasten ari diren irakasleentzako laguntza eta aholkularitza teknikorako zerbitzua izango dena eta Euskal Gaien Institutuan kokatuko dena.

## 4.6. Euskarazko irakats eskaintza

Beheko taulan DUko 1998-99 ikasturteko euskarazko irakats eskaintza aurkezten dizuegu. Eskaintza, batik bat, derrigorrezko kredituetan dago: 791 kreditu, kreditu guztien %17a dena.

1998-1999									
ikasturtea	Derrigorrezkoak		Hautazkoak		Guztira				
	Gainditu behar	Euskaraz	Gainditu behar	Euskaraz	Gainditu behar	Euskaraz			
	kop.	%	kop.	%	kop.	%			
Deustuko Unibertsitatea	4.668	791	16,9	1186,5	144	12,1	5.854,0	935	16

Jarraian ikusiko dugunez, Campus batetik bestera eta ikasketa batzuetatik besteetara alde esanguratsuak daude. Horrela, Donostiako Campusean fakultate eta eskola guztietan euskarazko kredituak daude. Bilbon ostera, oraindik ere, euskaraz krediturik eskaintzen ez duten ikastetxeak izan dira: Ekonomia eta Enpresa Zientzien eta Informatika Fakultateak eta Turismo, Teologia eta Idazkari Eskolak. Egia esan, oro har, euskararen presentzia Eskola Unibertsitarioetan oso eskasa da. Edozein kasutan, datorren

ikasturtean ikasketa guztietan euskarazko irakats eskaintza izatea aurreikusita dago.

Euskal Filologiak bazter utzita, euren eskaintza zabalagatik aipagarrienak Zuzenbide, eta Soziologia Fakultateak dira Bilbon eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea Donostian.

11998-1999									
ikasturtea	Derrigorrezkoak			Hautazkoak			Guztira		
	Gainditu behar	Euskaraz	Gainditu behar	Euskaraz	Gainditu behar	Euskaraz	Gainditu behar	Euskaraz	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%	
Zuzenbidea	261	130,5	50,0	46,5	0	0	308	130,5	42,4
Historia	210	24	11,4	69	0	0	279	24	8,6
Hispaniar Filologia	225	21	9,3	49,5	0	0	275	21	7,7
Ingeles Filologia	247,5	21	8,5	22,5	0	0	270	21	7,8
Euskal Filologia	225	175,5	78,0	49,5	54	109,1	275	229,5	83,6
Filosofia	201	9	4,5	60	0	0	261	9	3,4
Psikologia	235,5	22,5	9,6	40,5	0	0	276	22,5	8,2
Pedagogia	248	13,5	5,5	27	0	0	275	13,5	4,9
Gizarte Heziketa	171	22,5	13,2	19,5	0	0	191	22,5	11,8
Psikopedagogia	117	0	0,0	18	0	0	135	0	0,0
Antropologia	118,5	0	0,0	15	0	0	134	0	0,0
Teologia	244,5	9	3,7	37,5	6	16	282	15	5,3
Enpresen Administrazio...	298	0	0,0	39	0	0	337	0	0,0
Soziologia	218	48	22,1	57	12	21,05	275	60	21,9
Informatikako Ingeniaritza	84	0	0,0	57	0	0	141	0	0,0
Kudeaketa informat. Inge.	97,5	0	0,0	100,5	0	0	198	0	0,0
Industri Ing. Teknikoa	142,5	0	0,0	55,5	0	0	198	0	0,0
Guztira Eskolak	3.343	497	14,9	763,5	72	9,43	4106,5	569	13,8
Gizarte Lana	168	0	0	28,5	3	10,53	197	3	1,527
Turismoa	119	0	0	43,5	0	0	163	0	0
Teologia	108	0	0	0	0	0	108	0	0
Idazkari Eskola	36	0	0	0	0	0	36	0	0
Guztira Bilboko Campusa	3.774	497	13,2	835,5	75	8,98	4609,5	572	12,4

11. Irakasle hauetatik badaude bi Bilboko Campusean ere euskaraz irakasten ari direnak. Hala ere, irakas-lana nagusiki Donostian egiten dutenez, Donostiakoak bailiran zenbatu ditugu.

12. 1996-97 ikasturtean irakasle elebidunen portzentaia %10ekoa zen. 1998-99 ikasturteko portzentairik ezin dezakegu eman, irakasle guztiei buruzko daturik gertu ez baitugu.



	Derrigorrezkoak			Hautazkoak			Guztira		
	Gainditu behar	Euskaraz		Gainditu behar	Euskaraz		Gainditu behar	Euskaraz	
		kop.	%		kop.	%		kop.	%
Historia	210,0	27	12,9	69	0,0	0,0	279,0	27	9,7
Giza Zientziak-Enpresa	105,0	37,5	35,7	102	10,5	10,3	207,0	48	23,2
Ingeles Filologia	66,0	10,5	15,9	0	0,0	0,0	66,0	10,5	15,9
Euskal Filologia	148,5	137	92,3	45	49,5	110,0	193,5	186,5	96,4
Enpresen Administrazio...	249,0	73,5	29,5	88,5	9,0	10,2	337,5	82,5	24,4
Guztira Eskolak	778,5	286	36,7	304,5	69,0	22,7	1.083,0	355	32,7
Turismoa	115	4,5	3,9	46,5	0	0,0	162	4,5	2,8
<b>Guztira</b>	<b>115</b>	<b>4,5</b>	<b>3,9</b>	<b>46,5</b>	<b>0</b>	<b>0,0</b>	<b>162</b>	<b>4,5</b>	<b>2,8</b>
<b>Donostiako Campusa</b>	<b>894</b>	<b>295</b>	<b>33,0</b>	<b>351</b>	<b>69</b>	<b>19,7</b>	<b>1.245</b>	<b>359</b>	<b>28,8</b>

#### 4.7. Testu liburuak, doktore tesiak eta bestelako argitalpenak

Deustuko Unibertsitateak 1982tik 1998ra 45 testu-liburu argitaratu ditu euskaraz. Ondorengo taulan jakintza arloa bereizirik urtez urte DUK argitaraturiko testu liburuen kopurua adierazten da.

Jakintza Arloak	87	88	89	90	91	92	93	94	95	96	97	98	Guztira
Zuzenbidea				1			1	1	3	6	1		14
Letrak	1	1	1		1	2	1	1	3	1	1	1	14
Ekonomia eta Enpresa Z.						1	1			8	3	3	16
Teologia.										1			1
<b>Guztira</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>13</b>	<b>8</b>	<b>4</b>	<b>45</b>

Ikus daitekeenez, Euskal Filologia mailakoak bazter utzita, euskarazko testu-liburugintza, batik bat, Zuzenbide eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien alorrean gertatzen da. Izan ere, euskarazko irakats eskaintza zabalena duten ikasketetan.

Testu liburuez gain, Unibertsitateak beste 19 argitalpen atera ditu euskara gaineko gaiak jorratuz. Halaber, Ekonomia eta Enpresa Zientziei buruzko beste 19 kasu eta irakurgai argitaratu dira eta hizkuntzalaritzan ere beste hainbat.

Euskaraz eginiko lehenengo tesia 1987. urtekoa dugu. Orduz geroztik beste 19 tesi euskaraz aurkeztu dira. Aipatu urtetik 1998ra defendaturiko doktore tesiak orotara 368 izan direla aintzat hartuz, euskaraz burutu direnak multzo osoaren %5,43 dira.

Ondorengo taulan azken hamabi urtetan euskaraz aurkezturiko tesien kopurua azaltzen da, jakintza arloa bereiziz. Gehienak Letrak arlokoak dira, bertan baitaude Euskal Filologiari buruzkoak.

Jakintza Arloak	87	88	89	90	91	92	93	94	95	96	97	98	Guztira
Zuzenbidea						1							1
Letrak		1	1	1		2	2	2	2	1	1	1	14
Soziologia	1								2				3
Teologia									1				1
Informatika						1							1
<b>Guztira</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>0</b>	<b>4</b>	<b>2</b>	<b>2</b>	<b>5</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>20</b>

## 5. Mondragon Unibertsitatea

Hiru fakultate elkartu berrik —1997an alegia— osatzen duten Unibertsitate pribatua da Mondragon Unibertsitatea (MU): Eskoritzako Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI), Oñatiko Enpresen Zientzien Fakultatea (ESEO) eta Arrasateko Goi Eskola Politeknikoa (MEP). MU kooperatiba moduan antolatutako Europako lehen Unibertsitatea dugu eta, izenetik ondoriozta daitekeenez, Mondragon Korporazio Kooperatiba taldean txertatua dago.

### 5.1. Hizkuntzen gaineko arauketa unibertsitate-estatutuetan

MUko Estatutuek hizkuntz politika gaiari kapitulu oso bat eskaintzen diote (VII. kapitulua, 37. artikulutik 41 artikulura). Honek unibertsitateak hasiera-hasieratik hizkuntza normalkuntzarekiko hartu duen konpromezua islatzen du.

VII. kapituluaren giltzarri den 37. artikulua, euskararen arian-ariko normalkuntzarako unibertsitateak plangintza egiteaz gain beharrezkoak diren baliabideak jarriko dituela dio. Halaber, euskarazko irakaskuntza garatu eta gehituko duela esaten du eta, ikasle talde nabarmen batek hala eskatzen duenean, bereziki behartuta egongo dela irakaskuntza euskaraz ematera. Azkenik, unibertsitateak aipatu helburuak lortzeko egitura berriak sortu ahal izango dituela aurreikusten du.

Gainontzeko artikuluetan, alde batetik, irakasleak (38. art.) eta irakaskuntzaz kanpoko beharginak (40. art.) euskalduntzeko neurriak jasotzen dira eta, bestetik, unibertsitateak euskarazko irakats materialgintza eta ikerketak ez ezik (39. art.), euskara sustatzea helburu duten erakundeekin lankidetzak hitzarmenak ere bultzatuko dituela adierazten da.

## 5.2. Hizkuntza normalkuntzarako egiturak

VII. kapituluaren zehazturiko hizkuntza politika aurrera eramateko eta 37. 3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Mondragon Unibertsitateak Euskara Batzordeak sortu ditu. Unibertsitate mailako Euskara Batzordeak gain, fakultate bakoitzean Euskara Batzorde bat dago. Euskara Batzordeen funtzio nagusia, bakoitzak bere eremuan, euskararen erabileraren normalkuntza planifikatzea da.

## 5.3. Hizkuntza normalkuntzarako plangintzak

Estatutuaren ez ezik, Hirurteko Plan Estrategikoan ere, MUK euskara hedatzearen eta normalizatzearen erantzukizuna bere egin duela argi azaltzen da. 1997-2000 Planak honela dio hitzez hitz: "...fruto del compromiso con el desarrollo económico y cultural de su entorno, Mondragon Unibertsitatea fomentará el clima euskaldun dentro del ámbito universitario, propiciando su uso cotidiano entre los distintos estamentos de la Universidad."

Ildo beretik, 1998-99 Gestio Planean MUK zehazturiko funtsezko ekintzetako bat hizkuntza normalizazio plana egitea da. Planari ekin baino lehen, ikastetxe bakoitzean euskararen egoera zein den argitzeko diagnosi-lan bat egin da. Bertan MUKo hizkuntza egoeraren deskribapen kuantitatibo eta kualitatibo sakona egiten da fakultatez fakultate. Ikasle eta langileen hizkuntza gaitasuna, euskararen erabilera idatzia eta ahozkoa zerbitzu-zein lan-hizkuntza legez, hizkuntza egoerari buruzko iritziak eta beste jasotzen dira bertan. Izan ere, lan honetan emango ditugun datu gehienak diagnostik atera dira.

Hortaz, diagnostik abiatuta une honetan MUKoak euskararen erabileraren normalizaziorako plana zertzen ari dira.

## 5.4. Ikasleak

1998-99 ikasturtean eta 1. eta 2. zikloari dagokienez, MUn 2.606 ikasle daude: 1.559 Goi Eskola Politeknikoan (MEPen), 593 Enpresen Zientzien Fakultatean (ETEOn) eta 454 Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (HUHEZIn).

MUn bi ikasle bakoitzak euskaraz ikasten du. Fakultateka, HUHEZIn denek euskaraz ikasten dute, MEPen erdiak inguru eta ETEOn %11k.

1998-99 ikasturtea	ikasleak guztira	euskaraz ikasten	
		Kop.	%
HUHEZI	454	454	100
ETEO	593	65	11
MEP	1.559	736	47,2
<b>MU</b>	<b>2.606</b>	<b>1.255</b>	<b>48,2</b>

Euskaraz ikasteko gaitasunari heltzen badiogu, hiru fakultateetako ikasle gehienak gai dira unibertsitate-ikasketak euskaraz egiteko<sup>13</sup>. Hori adierazten dute diagnosirako egindako inkestako datuek. Ikasle multzo osoaren %73,5ak OHOk ikasketak D eremuan egin ditu. Ikasketa ertainak euskaraz egin dituztenak hainbeste ez badira ere (%67a), edozein fakultate hartzen dugula ere, ikasle gehienek D eremuan jaso dute beraien unibertsitate-aurrerako prestakuntza. Izan ere, MUK ikasleak gehienbat Euskal Autonomia Erkidegotik hartzen ditu eta, batik bat, Gipuzkoatik (%71a).

1998-99 ikasturtea	euskaraz ikasteko gai
HUHEZI	%100
ETEO	% 74,9
MEP	%66,6
<b>MU</b>	<b>%76,2</b>

Ikasteko gai eta ikasten ari direnen arteko aldea MUn 25 puntu portzentualekoa da. Diferentzia bereziki nabarmena da ETEOn (63 puntu portzentual); MEPen kasuan, aldea asko jaisten da (15 puntu) eta HUHEZIn, jakina, ez dago alderik.

## 5.5. Irakasleak/Langileak

Euskararen egoerari buruz MUn egindako diagnosian langileei dagozkien datuak batera azaltzen dira, irakasle eta administrazio eta zerbitzuetako beharginak bereizi barik. Hargatik, guk ere horrela emango ditugu.

Mondragon Unibertsitateko langile gehienak (%73) euskaldunak dira; hots, gehienek euskaraz ondo edo nahiko ondo berba egiten dute: %94 HUEZIn, %60 ETEOn eta %73 MEPen. EGAdunak, bestalde, %47 dira orotara. Ondorengo taulan fakultaterik fakultateko portzentaiak azaltzen zaizkigu.

1998-99 ikasturtea	euskaldunak	EGAdunak
ETEO	%60,0	%40,0
MEP	%72,8	%42,4
<b>MU</b>	<b>%72,7</b>	<b>%46,7</b>

Aurrerago esan bezala, Estatutuek 38. artikuluan irakasleen euskalduntzearen gaia

13. Euskaraz ikasteko gaitasun nahikoa diogunean, diagnosirako egindako inkestan euskaraz idazteko eta berba egiteko maila ona edo nahiko ona adierazi dutenez ari gara.

jorrazten dute. Bertan adierazitakoaren arabera, Unibertsitateak irakasleen prestakuntza bultzatuko du ahalik eta lasterren euskarazko irakaskuntza eta ikerkuntza normalizatzeko.

Xedatua betez, MUko irakasleak euskarazko klaseetara joan daitezten sustapen neurriak hartu ditu. Horrela, diagnostik ondoriozta daitekeenez, euskarazko prestakuntza jasotzeko HUEZIn finantzaketa edo denbora eskaintza osoa eskaintzen zaie eta ETEOn eta MEPen finantzaketa edo denbora eskaintza partziala.

Irakaslegoa euskalduntzeko beste neurri bat jasotzen dute MUko Estatutuek: euskara baloratu beharra irakasleen kontratazioetan. Horrez gain, unibertsitatearen oinarriko arauak xedaturikoaren ildotik, normalkuntzarako organoek aholku emango dute irakasle berriak kontratatzerakoan.

## 5.6. Euskarazko irakats eskaintza

Mondragon Unibertsitateak 1340 kreditu ematen ditu euskaraz, kreditu guztien %55,4a. Argitu behar da portzentaiak kreditu multzo osoari egiten diola erreferentzia eta ez gainditu beharreko kredituei, aurreko bi unibertsitateen kasuan legez. Horren ondorioz, portzentualki euskaraz kreditu gehien eskaintzen duen euskal unibertsitatea da.

1998-1999 ikasturtea	Kreditu guztiak	Euskaraz	
		kop.	%
Ikasketak			
Irakasle-Atzerriko Hizkuntza Esp.	207	207	100,0
Irakasle-Hezkuntza Esp.	207	207	100,0
Irakasle-Haur Hezkuntza Esp.	207	207	100,0
Humanitatean Lizentziatua	150	105	70,0
<b>HUHEZI</b>	<b>771</b>	<b>726</b>	<b>94,2</b>
Gestio Informatikan Injeneru Tek.	145,5	0	0,0
Enpresen Administrazio Lizentz.	307	67	21,8
Enpresa Zientzietan Diplomata	69	0	0,0
<b>ETEO</b>	<b>521,5</b>	<b>67</b>	<b>12,8</b>
Mekanika Injinerutza Teknikoa	225	135	60,0
Elektronikako Industri Injinerutza T.	225	100	44,4
Sistemen Informatikako Injinerutza T.	225	84	37,3
Industri Diseinuan Injinerutza Tek.	150	97,5	65,0
Industri Antolakuntzako Injinerutza	150	130,5	87,0
Industri Elektro. eta Automatika Inj.	150	0	0,0
<b>MEP</b>	<b>1125</b>	<b>547</b>	<b>48,6</b>
<b>MONDRAGON UNIBERTSITATEA</b>	<b>2417,5</b>	<b>1340</b>	<b>55,4</b>

HUHEZIn Irakasletza ikasketako ikasgai guztiak soilik euskaraz eskaintzen dira, erdarak izan ezik. Humanitateen ikasketetan ikasgai gehienak ere euskaraz bakarrik irakasten dira (%80 bat).

ETEOn, berriz, ikasketetako bakar batean —Enpresen Administrazioan— eta lehen mailan soilik ikas daiteke euskaraz.

Azkenik, Arrasateko Eskola Politeknikoan eskaintzen diren kredituen ia erdia euskaraz jaso daitezke eta ikasketetako lehen mailatan dago kontzentratuta euskaraz ikasteko aukera.

## 5.7. Doktore tesiak, testu liburuak eta bestelako argitalpenak

MUn euskaraz eginiko doktore tesi eta testu liburuei buruzko daturik ezin izan dugu eskuratu. Ostera, diagnosian aipaturiko datuetatik zera ondoriozta dezakegu: 1998-99 ikasturtean HUHEZIn argitalpen guztiak euskaraz izan direla, MEPen heren bat eta ETEOn ez dela euskarazko argitalpenik kaleratu.

	Argitalpenak euskaraz
HUHEZI	%100
ETEO	%0
MEP	%33

## 6. Azken gogoeta

17 urte pasa dira Euskararen Legeak gure erkidegoan hizkuntz ofizialkidetasuna arautu zuenetik eta, ziurrenik, ez gara denok ados jarriko euskararen egoerak EAEko unibertsitateetan izan duen bilakaera baloratzeko orduan. Batzuek prozesua astiroegi doala pentsatuko dute, beste batzuek, berriz, arinegi doala. Edozein kasutan, azterlan honen helburua ez da euskararen erabileraren normalkuntza prozesuak unibertsitate bakoitzean izan duen gelditasunaren edo arintasunaren balorazioa egitea, baizik eta euskararen egoera EAEko unibertsitateetan zertan den ezagutzeko lagungarri izan daitekeen informazioa ematea. Norberaren esku uzten dugu, beraz, prozesuaren balorazioa.

Balorazioak balorazio, momentu honetan EAEko unibertsitate-sistemaren erronka, hezkuntza-sistemak unibertsitate-aurreko irakaskuntza euskalduntzeko egin duen ahaleginari jarraipen bat ematean datza. Ikusi dugun moduan, aztertutako hiru unibertsitateetan ondorengo fenomenoak errepikatzen ari da: euskaraz ikasteko gai diren ikasleak azkenean euskaraz matrikulatzen direnak baino dexente gehiago dira. Zalantzarik gabe, egoera horretan zerikusi zuzena du euskarazko irakats eskaintzaren eskasiak. Jakina, euskarazko eskaintza ezean ez dago euskaraz ikasterik. Baina euskarazko eskaintzaren eskasiaz ari garenean ez gara bakarrik ari euskaraz

eskaintzarik ez egoteaz. Izan ere ikasle ugari, euskarazko eskaintza izan arren, gaztelaniazko lerrora jo ei du, batez ere, euskarazko eskaintza testimoniala edo erdipurdikoa den ikasketetan. Joera hori azal dezaketen arrazoiak, besteak beste, honako hauek izan daitezke: irakasgai bakan batzuk, eta lehenengo mailetan, euskaraz eta gehienak gazteleraz egin beharko dituztela ikusita, hizkuntz ereduaren aldaketak ekar liezazkiokoen zailtasunak edo deserosotasunak ekiditea, zenbait euskal lerrok duen irudi kaskarra dela eta gaztelaniazkoen ustezko kalitate hobea ziurtatzea edota euskarazko irakats materialen eskasiak euren ikas-jarduera ez kaltetzea.

Irakats eskaintza ahula duten ikasketetan ez ezik, eskaintza zabala duen zenbait ikasketan ere aipatu fenomenoak gertatzen da. Esaterako, EHUko Zuzenbide eta Lan Harremanetako ikasketetan, non irakasgai guztiak euskaraz eskaintzeagatik ere, euskarazko taldean matrikulatutakoak ez dira ikasle euskaldunen erdira iristen. Honen arrazoiak, ikasleek geroko lanbide-jarduera gazteleraz burutu beharko dutela uste dutelako izan daiteke; lanbideotan, beste batzutan baino gehiago, gaztelera funtsezko lan tresna baita.

Eragozpen hauek gainditzeko, euskarazko irakats eskaintza sendotu beharko da eta, behar bada, jarraitu beharreko bidea eskaintza mailakatzearena izan beharko da, euskarazko eskaintza ikasmaita denetara hedatzen eta ez bakarrik lehenengo ikasmaitetara. Modu berean, euskarazko irakats-materialgintzan sakondu beharko da. Azkenik, gaztelania lan tresna nagusizat duten lanbideetarako karreraren kasuan, euskarazko irakaskuntza eta gaztelania, lan hizkuntza gisa, ondo ezagutzea elkarren aurka ez egoteko neurriak hartu beharko dira.

Hortaz, euskarazko irakats eskaintza zabaldu eta sendotu beharko da, baina ez edozelan. Irakaskuntzaren kalitatea jagozea nahitaezkoa da; izan ere, euskarak aurrera egingo badu kalitatearekin lotuta izango da.

Azkenez, euskararen erabileraren normalkuntzan sakontzeko, zerbitzu-hizkuntza den eremuetan —irakaskuntza jaso eta ematerakoan edota administrazio harremanak bideratzerakoan— ez ezik, unibertsitate eremuan sortzen diren gainontzeko harremanetan eragiteari funtsezkoa deritzogu —ikasle, irakasle eta administrazio eta zerbitzuetako langileen arteko harremanak e.a.—, eta baita plangintzetan alderdi hori kontuan izateari.